



(maiatza - mayo)

Kristinau bizitzaren gailur eta iturri.

Oraindik ez dogu ulertu ospakizunak, berez, zentzuna dauana; domekako liturgia askatasunezko esperientzia aberatsaz, irudipenaren eta sormenaren joko askeaz beteta egon behar dauana. Liturgia bizi eta askatzaileaz, liturgia alaiaz, lotsa eta hipoteka bako liturgiaz, kalidadez eta edertasunez betetako liturgiaz ari naz; azkenik, ugaritasuna gehiegikeria bihurtu ez daiten eta hunkipenak burua galtzeraino mugak gaintitu ez daizan, ganezka egiten dauan adierazpen eta hunkipen erlijiosoaren ugaritasunak eta neurritasun jasangarri eta zentzunezkoak bat egiten daben oreka-puntu gatx horretan iraungo dauan liturgiaz.

Luzarora, ospakizun bizi, alai eta konprometituaren alde egiten dogunok hari-harian jardun behar dogula autortu behar dogu; alde batetik, xalotasuna arruntasun eta, bestetik, misterioitsu eta sublimea itxurakeria huts bihurtzen ez dan puntu hauskor eta gatx hori etenbarik bilatu behar dogu.

J. M. Bernal

irakurketa eta alkarrizketarako gida

1. Zelan hobetu geinke partaidetza "kontziente eta aktiboa" ospakizunetan?



2. Ze irudi emoten deutsegu gure ospakizunetara noizbehinka datozanei: banaketari, abestiei, ministerio desbardinetan parte hartzeari, erantzuteko erari, berben bizitasunari, harrerari,... jagokonez?



3. Domeka, benetan ete da kristinau alkarteko kide izatean berresteko eguna? Jaunari eskainitako eguna? Zelan biztu gure sentiberatasuna domekaren sena sakonago bizi izateko?





Sacrosanctum Concilium (SC) Liturgia Santuaren Konstituzinoa. 1963.eko abenduaren 4a

10. Liturgian jotzen du Elizaren jardunak bere gailurra, eta, era berean, liturgia da Elizaren indar guztiaren iturri. Bada, apostolutza-lanak honetara zuzenduak daude: guztiak, fedearen eta bataioaren bidez, Jainkoaren seme-alaba eginak izan ondoren, batzarrean bil daitezten Elizaren baitan, Jainkoa gorets dezaten, oparian esku hartu eta Jaunaren afaria jan dezaten.

Liturgiak berak, bestalde, "pazko-sakramentuez" ase dituen fededunak "maitasunean bat egitera" daramatza; otoitz egiten du "fedean hartutakoa bizitzan gorde dezaten", **Jaunak, gizakiekin Eukaristian berritzen duen itunak, fededunak Kristoren maitasun eragilea erakartzen eta pizten ditu.**

11. Hala ere, eragin bete hori lortu ahal izateko, beharrezkoa da fededunak liturgiara gogo onez hurbiltzea, bihotza ahotsarekin bat egitea, eta jainko-graziarekin lan egitea, alferrik har ez dezaten grazia hori. Horregatik, saia bitez eliz artzainak, ez bakarrik liturgi ekintzan **arauak ongi betearazten ospakizunaren baliotasun eta zilegitasunari begira, baita eliztarrek, ohartuki, jarrera biziz eta onuraz hartan esku har dezaten ere.**

14. Eliza Amak biziki nahi du, fededun guztiak liturgi ospakizunetan oso-osoan, ohartuki eta era aktiboan esku hartzera zuzentzea; hala eskatzen du liturgiaren beraren izaerak, eta, kristau herriak, "jatorri aukeratu, errege-apaizgo, nazio sagaratu, Jainkoak beretzat irabazitako herri" (1 Pe, 2, 9; cf. 2, 4-5) denak, eskubidea eta eginbeharra ditu horretarako, bataioaren indarrez.

27. Errituak, bakoitzaren izaerari dagokionez, elkarteko ospakizunean egin daitezkeenean, fededunak bertan direla eta biziki esku-hartzen dutela, eta hau hobestea gomendatu behar da, ahal dela, banakako ospakizun eta ia pribatuaren ondoan.

34. Ohikuneak xalotasun sotil batez jantziak izan bitez; laburrak direlako argiak izan daitezela eta alferrikako errepi-kapenikgabeak; fededunen adimenera egokitu daitezela eta, gehienetan behintzat, ez dezatela azalpen askoren premiarik izan.

gailur eta iturri

Liturgiaren sena laburtzen dauan esamoldea. Alde batetik, fedearen araberako eguneroko bizitza jasoten eta adierazoten dau; bestetik, bizitza hori fedean sendotzeko eta hobetzeko eragilea da.



Liturgi erreforma indarrez hasi zan baina gero izoztuta geratu zan eta, are gehiago, atzera pausuak emon ziran. Argazkian, ospakizuna errito afrikar barrituari jarraituz.

liturgi ospakizunetan oso-osoan, ohartuki eta era aktiboan esku hartu

Ardura nagusia liturgi erreforman. Hauxe litzateke helburua: fededun guztiek, era desbardineta, ospakizunaren hitzezko, gorputzeko, musikazko eta sinbolozko adierazpena ulertu eta bere egin daiela.

ez daiela azalpen askoren premiarik izan

Errituek (sinboloek) azalpen asko behar izateak, berez ez dirala esanguratsuak adierazoko dau.



Sacrosanctum Concilium (SC) *Liturgia Santuaren Konstituzinoa. 1963.eko abenduaren 4a*

37. Elizak, federekin eta elkarte osoaren onarekin zerikusirik ez duten gauzetan, ez du berdintasun zorrotzik ezarri nahi, ezta liturgian ere.

38. Erritu erromatarraren funtsezko batasuna gorderik, liturgiako liburuak eraberritzean, **leku egin bekie bidezko berezitasunei eta talde, eskualde eta herrietara egindako moldaerei**, batez ere misioetan; eta hau, bere garaian, kontuan har bedi ohikuneen egitura eta errubrikak ezartzerakoan.

48. Horregatik, Elizak ardura handia izaten du, **fededunak ikusle mutu eta arrotz izan ez daitezzen fedeko misterio honetan**; aitzitik, ohikune eta otoitzen bidez misterio hau ongi ulerturik, ohartuki, debozioz eta jarrera biziz esku har dezaten ekintza santuan, Jainkoaren hitzean eskolatuak izan daitezzen, Jaunaren mahaian indartuk izan daitezzen, Jainkoari eskerrak eman diezazkioten, **ostia garbia ez apaizaren eskuz soilik, baita honekin batera berek ere eskaintzerakoan, beren burua eskaintzen ikas dezaten**; egunetik egunera, Kristo Bitartekoaren bidez, Jainkoarekin eta elkarrekin hobeki bat egin dezaten, azkenez, Jainkoa guztiengan guztia izan dadin.

106. Elizak, Kristoren piztuera egun berean sortzen den tradizio apostolikoaz geroztik, zortzi egunetik behin ospatzen du pazko-misterioa, bidezko denez, Jaunaren eguna edo igandea deritzon egunean.

Igandea, fededunen deboziorako aurkeztu eta haien gogoan ongi sartu behar den jaiegun nagusia da; alaitasun eguna ere izan behar du eta lanik egiten ez den eguna. Honen gainetik ez bedi jarri beste festabururik, egiaz garrantzi handi-handikoak izan ezik, igandea liturgi urte osoaren oinarri eta gunea delako.

bidezko berezitasun eta moldaerak

Aldaketak egiteko aukerari ateak zabaltzen jakoz -mendetan itxita egon ostean-, testuinguru eta kultura desberdinetan txertatzeko.

euren burua eskaini ostia garbia eskaintzerakoan

Fededunek euren burua eskaintzen dabe Jesukristo Eukaristia emotean eta emoteagaz. Hau ez da azaleko erritua, fede esperientziaren alkarte adierazpena baino.

Taizéko monasterio-alkarte ekumenikoak (argazkian, Roger anaia Joan XXIII bere lagun minagaz) Kontzilioan parte hartu eban eta guztiz positibotzat jo eban. 1970ean, "Gazteen Kontzilioa" deitutakoa antolatu eban.





OTOITZ EGIN

Prefazioa

Eskerroneko eta gorespeneko otoitza Eukaristia Otoitzaren hasieran, 'Santu, santu, santua' dalakoaren aurretik. Hobekuntza nabarmenak izan ditu Eukaristiako osagai honek.

VII prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen
nonahi eta beti Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
itunaren eta bakearen Jaungoiko horri.
Zeuk dei egin zeuntsan Abrahami
eta bere herritik aterateko agindu zeuntsan,
herri guztien aita egiteko.
Zeuk eragin zeuntsan Moisesi,
zure herria askatu eta agindutako lurretik eroateko.
Zuk, historiako azken aldian, zure Semea bialdu dozu,
bizilagun eta erromes lez gure artera,
gu pekatutik eta heriotzatik askatzeko;
eta Espiritua isuri dozu, herrialde guztiak
herri barri berean, zure erreinua,
zure seme-alaben askatasuna eta maitasunaren agindua
helburutzat dituan herrian batzeko.
Zeure ontasunez jasotako doe guzti honeengaitik,
aingeru eta santu guztiakin batean,
zure aintzari goratzarre hau
beti eta beti abesten deusagu:

Jaungoikoak bere Eliza gidatzen dau prefazioa

Eskerrak emoten deusuguz, Jauna, Aita gurea,
bedeinkatzen eta goratzen zaitugu,
gauza guztiak sortu dozuzalako
eta bizia emon deuskuzulako.
Ez gaituzu inoiz bakarrik izten,
bizirik agertzen zara gure artean.
Antxina gidatu zenduan Israel zure herria,
esku sendoaz eta besoa luzatuz,
basamortu zabalean zehar.
Gaur zure Eliza erromesaren bidelagun zara,
zure Espirituaren indarra emonez.
Zure Semearen bitartez bizitzako bidea zabaltzen dozu,
mundu honetako ibiltaldiaren ostean,
zure erreinuko gozamen betera heldu gaitzean.
Horregaitik, aingeru eta santu guztiakin batean,
zure aintzari goratzarre hau
beti eta beti abesten deusagu:

II Pazko-prefazioa

Egoki da, bai eta zuzen
Zu, Jaun hori, beti gorestea,
baina poz handiagoz.
Kristo, gure Pazkoa,
hil eta eskeinia izan dan aldi honetan.
Honan bitartez jaiotzen dira
agiaren seme-alabak betiko bizirako,
eta zabaltzen jakez fededunei
zeruko erreinuko atea;
gure heriotza desegina izan da Haren heriotzan
eta Haren biztueran gu guztiok biztu gara.
Horregaitik, pazko-pozez gainezka dagoz
gizon-emakume guztiak mundu zabalean.
Zeruko indar eta aingeru guztiak ere
horregaitik dagoz beti
zure aintzaren gorespena kantatzen:

Urtean zeharreko domeketako I prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen
nonahi eta beti Zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiko Horri,
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.
Miragarria da
Berak Pazko-misterioaz egin deuskuna:
pekatuaren eta heriotzaren menpean bizi ginanok
bere ospe ederrera deitu gaitu;
eta orain hau dogu izen:
"jatorri hautatu", "errege abadetza",
"enda santu" eta "Zeuk aukeratutako herri";
horrela, ilunpetatik zure argi zoragarria deitu gaituzunok
zure egintza harrigarriak nonahi zabaldu daiguzan.
Horregaitik, aingeru eta goi-aingeruekin
eta zeruko talde guztiakin,
zure aintzari goratzarre hau
beti eta beti abesten deusagu: Santu, santu, santua...

Zuotako batzuen artean prefazio honeek irakurri, patxadaz, presa barik, eta, gero, bakotxak errepikatu daiala deigarrien gertatu jakon esaldia. Amaitzeko, 'Santu, santu, santua...' abestu daiteke.